

{ analisia } **Isidro Esnaola**

Arrazoia izan ala indarra izan

Urtarrilaren 25ean Greziako hauteskundeak Syriza ezkerreko koalizio erradikalak irabazi zituen. Ordura arte gobernu ardurak izandako alderdiek emaitza oso txarrak izan zituzten hauteskundeotan. Troiak inposatutako programaren aurka egindako diskurtsoa eta austeritatearen kontrako neurriak izan ziren Syrizaren arrakastaren gakoak. Berehala koalizio gobernua adostu zuen Syriza ANEL eskuineko alderdi nazionalistarekin. Bi ziren elkarren artean zituzten ezaugarriak: austeritate politikaren aurkako eta burujabetza berreskuratzearen aldeko jarrera, bate-tik, eta ordura arte gobernu ar-dura izan ez izana, bestetik.

Hauteskundeak egin aurretik joko zela berria marrazten hasi zen Troika. Horrela, hauteskun-deak egin baino hiru egun lehe-nago Europako Banku Zentralak erabaki esanguratsua hartu zuen: estatu bonuen hileroko erosketatik kanpo uztea Grezia-ko estatu bonuak. Erabakiak hu-rrengo Gobernuaren finantzazio ahalmena erabat baldintzatzen zuen. Jukutriak ez zuen garaipe-na oztopatu, baina Gobernu be-rriak izango zuen giroa argi utzi zuen. Alexis Tsiprasek hautes-kundeen biharamunean kargua hartu zuen eta bi egun geroago Gobernu berria eratu zen. Mi-nistroen artean, ANELeko buru Panos Kammenos Defentsa mi-nistro postuan eta Yanis Varou-fakis Finantza ministro gisa.

Troiak ez zion ezta 100 egu-neko kortesiazko tartea ere utzi Gobernuari. Hauteskundeak pa-sa eta hamar egunera, otsaila-ren 4an, hasi zen erasoaldia. Eu-ropako Banku Zentralaren bigarren erabaki esanguratsua

Ezkerraren proposamenak biribilak izaten dira, baina askotan garrantzitsuena ahazten dute: programa hoberena ere ez da ezer ez badu atzetik indar nahikorik gauzatua izateko.

iritsi zen: aurrerantzean Grezia-ko estatu bonuak berme gisa onartuko ez zituela-eta, herrial-deko bankuei likidezia bermatzen zien lerroa eten zuen. Une horretatik aurrera, negozioazio eta mehatxuen jokoak maisuki garatu zuen Troiak: itolarrira eraman eta azken unean arnas-teko aukera eman zion behin eta berriro Greziako Gobernuari. Urte erdi pasa zuen horrela.

Ekainaren 22an euroaren gailurra egin zen. Bileraren hizpide nagusia Greziako egoera izan zen. Tsiprasek Greziari proposa-tutako ardatz nagusiak onartu eta hilak 25ean proposamen bat helarazi zion Bruselako taldeari, Troika ordezkatzan zuen nego-ziazio taldeari, alegia. Taldeak Atenasek proposatutako plana errefusatu zuen. Ezezko horren ondoren, Greziako Gobernuak erreferendum bat deitu zuen uztailaren 5erako. Greziako Go-

bernuaren eta Europar Batasu-neko erakundeen arteko kon-frontazioa gune gorenera iritsi zen orduan: Gobernuak banke-txeetatik dirua ateratzeko mugak ezarri zituen, burtsak bere ateak itxi zituen, Nazioarteko Diru Funtsak Grezia ordainketa etenaldian zela iragarri zuen...

Erreferenduma Greziako Go-bernuak irabazi zuen: ezezkoak botoen %61,31 lortu zituen %62,5eko parte hartzearekin. Hala ere, ondorengo negozioazio-etan hirugarren erreskate plan bat onartzera behartuko zuten Grezia Europako erakundee-k. Ematen zuen publikoak eginda-ko neurrietatik harago beste adostasun batzuk egon bazeu-dela, baina ez zen behintzat ezer ezagutzera eman. Edozein kasu-tan, sortutako egoeraren irten-bidean, bi aldetan eman zen ba-naketa nabaria: Nazioarteko Diru Funtsak Greziako zorra ez

zela jasangarria eta «arintze» bat beharrezkoa zela esan zuen, eta, Syrizaren aldean, bestalde, 32 diputatuk plan berriaren kontra bozkatu zuten eta sei abstenitu egin ziren. Bozketaren ondoren Gobernua moldatu zuen Tsiprasek. Azkenean, abuz-tuan sinatu zen hirugarren erreskate plana eta jarraian hau-teskundeak deitu zituen Tsipras berak zuen babes parlamentario eskasa zela medio.

Hurrengo egunetan Syrizaren zatiketa gauzatu zen. Energia ministro ohi Panagiotis Lafaza-nisek eta beste 24 diputatuk He-rritar Batasuna sortu zuten. Fi-nantza ministro ohi Yanis Varoufakis ez zen alderdi be-rrian sartu, baina kanpainaren azken egunean bere babesa eman zion. Iraileko hauteskun-deak Syriza irabazi zituen be-rriro –lau eserleku galduz– eta ANEL alderdiarekin gobernu akordioa berritu zuen. Herritar Batasunak, berriz, ez zuen boto-en %3ko langa gaintitu eta eser-lekurik gabe gelditu zen Grezia-ko Parlamentuan.

Zenbait ondorio

Greziar 2015ean bizitako proze-su politikoak hausnarketa asko-rako ematen du. Horietako ba-tzuk bildu ditugu jarraian. Europar Batasuna sortu zenetik lehen aldiz, estatu baten gober-nura europar *establishment*-etik kanpoko indar bat iritsi da es-treinakoz. Elementu horrek adierazten du Europa osoak, baina batez ere Greziak berak, bizi duen krisiaren sakontasu-na; era berean, krisia gaintitze-ko Europak inposatutako politi-ken kontrako jarrera irmoa erakusten du. Ezker eraldatzaile-ak bere aukerak ondo lantzen baditu hauteskundeak irabaz di-



tzakeela ere frogatzen du, baita Europan bertan ere.

Nahiz eta Greziako gobernu koalizioa antinaturala iruditu hasiera batean, adostasuna lortu zuten bi indarrek burujabetzaren aldarrikapen komuna zuten oinarri. Kapitalaren aldeko Europar Batasunaren eraikuntzak burujabetzaren beharra ekarri du lehen plano-ra, ez bakarrik estaturik gabeko herrietan, baita jada estatua duten herrietan ere.

Greziako krisiak botere ekonomikoaren gobernupean gaudela agerian utzi du. Fun-tsezko erabakiak botere ekonomikoak inposatzen ditu eta botere politikoak ameto ematen du. Bien arteko lotura inoiz baino agerikoagoa da krisi honetan. Adibide garbiena Mario Draghi bera da, egungo Europako Banku Zentraleko buru gisa Greziako Gobernuari finantzazioa moztu diona eta garai batean Golman Sachs bankuko Europako buru zenean Greziako orduko kontuak faltsutzeko laguntza eman zuena. Gobernu ekonomiko bateratu horren aurrean, ez dugu ezkerreko indarren batasunik lortu.

Botere ekonomikoaren adar hertsatzailea finantza sistema bera da. Garrantzitsua da oso

Alexis Tsipras, Syrizako jarraitzaileekin urtarileko hauteskundeen garaipena ospatzen.
Aris MESSINIS | AFP

hori kontuan hartzea, izan ere, diskurtsoetan defizita handitza eta kredituak hartzera erraz jotzen da. Zorrak, baina, noizbait bueltatu egin behar dira; eta, orduan, finantza sistemak bere indarra erakusten du. Ez da hain popularra zerga erreformaz aritzea, baina finantza publikoak osatzeko ezinbesteko modua da hori. Eta aberastasuna banatzekoa. Defizitera jotzeko aukerak proiektu zehatzekin lotuta joan behar du. Eskuineko indarrek ez dute finantza publiko orekaturik eduki behar; kredituak hartzeko ez dute arazorik, finantza sistemak agintzen duena egiten baitute egoera edozein delarik. Eta boterea galtzen badute, hurrengo gobernuak erabat hipotekatutako administrazioa jasoko duenez, kezkatzeko arrazoirik ez.

Greziako krisiarekin agerian gelditu dira politika instituzionalaren mugak. Hauteskunderak irabaztea, gehiengoak osatzeta eta gobernuak antolatzea posiblea da, baita ezker erradikaleko koalizio batentzat ere. Zenbait arau eta politika aldatzea ere bai, baina betiere sistemaren oinarritzko joko arauak ukitu gabe. Hori beti izan da horrela; sozialdemokraziaren ibilbide luzea da ho-

rren adibide garbiena. Hala ere, batzuetan ahaztu egiten dugu hori. Eraldaketa politikoa bilatzen bada, programak garatzea ezinbestekoa da, baina lanketa hori beste diskurtso sakonago batekin etengabe osatu behar da: sistema politiko-ekonomikoaren oinarritzko arauak zalantzan jarri behar dira. Afera, adibidez, euroa da, ez austeritate politikak.

Modu berean, gauzak aldatzeko ez da nahikoa arrazoia izatea. Ezkerreko indarrek askotan osatzen dituzte programa biribilenak, hari guztiak ondo hausnartuta eta elkarren artean orbangabe josita. Gainera, datu eta arrazoiak bilatzen dituzte beraien proposamenak ahalik eta hobekien oinarritzeko. Proposamen biribilak izaten dira, baina askotan garrantzitsuena ahazten dute: programa hoberena ere ez da ezer ez badu atzetik indar nahikoa gauzatua izateko. Arrazoia izatea garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa indarra izatea. Eta indar nahikorik ez denean, zenbait kontutan amore eman behar da kontu garrantzitsuenak aurrera ateratzeko. Bestela, bere jakindurian preso gera daiteke indar hori, eta, are okerrago, hutsaltasun politikoan.

2015